

## FORO ERREGULARRA – KIDE BERRIEN TALDEA

2019-11-18ko bileraren akta – Sareen Sarea egoitza (Bilbo)

**Bertan izan dira:** Maialen Olabe (EGK), Mikel Barturen (Sareen Sarea, Arantza Otaolea (Bilboko Emakumeen Kontseilua) eta Goizalde Atxutegi (Innobasque – sozietate zibilaren Idazkaritza Teknikoa Foro Erregularrean); **Ez da bertaratu** Ana Molina (Mestiza elkarte), baina Idazkaritza Teknikoaren bidez eman du bere iritzia

### 1. HARTUTAKO ERABAKIAK

Miren Fernandez de Landa **ORDEZKATZEA**ri dagokionez:

- Alberto Ortiz de Zarate ordezkatzeko prozesua kontuan hartuta, Miren Fernandez de Landarengana jo, eta galdetu behar zaio haren antzeko profila duen pertsonaren bat izendatu nahi duen Foro Erregularrean kide izateko.
- Foro Erregularrean Joseba Terreros (landa-ingurua, Araba) sartzeko AFAk egin duen proposamena egokitzat jotzen duen galdetuko zaio, agian interesgarria izan daitekeelako harentzat.
- Aurkako proposamenik ez bada, taldeak ontzat eman du Joseba Terreros Foro Erregularrean sartzea.
- Arduraduna: Goizalde Atxutegi

**KIDE BERRIEI** dagokienez:

- **Hiru erakunde berri** sartuko dira Foro Erregularrean.
- Honako erakunde hauei **proposatuko zaie** sartzeko:
  - Eusko Ikaskuntza – Foro Irekiak proposatuta, lurraldean ondo errotuta dagoen eta modu irekian eta partaidetuan ezagutza sortzen duen erakundea dela uste delako. Gainera, oinarri sozial zabala eta aniztasun ideologikoa duen erakundea da. Gainera, OGPren aurrean planaren hautagaitza babestu zuen erakundeetako bat izan zen.
  - Unicef Euskadi – Elsa Fuente, konpromiso-taldeetan modu aktiboan parte hartzen ari den eta Foro Erregularrean ez dagoen ikuspegi bat (hautzaroarena) jasotzen duen erakundea delako.
  - Gamaker elkarte, Foro Erregularreko kide izateko deialdi irekian parte hartu zuen. Sormena eta herritarren aktibazioa bezalako balioak lantzen dituen tokiko elkarte baten ikuspegia ematen du (*maker* mugimendua).
- **Sartzeko proposamena honela egingo da:**
  - Arduradunak:
    - Eusko Ikaskuntza – Mikel Barturen kontaktuak egingo du.
    - Unicef Euskadi – Arantza Otaolea kontaktuak egingo du.
    - Gamaker elkarte – Maialen Olabe kontaktuak egingo du.
  - Eman beharreko mezuak:
    - Zer dira OGP eta OGP Euskadi Plana.
    - Foro Erregularraren zeregina, zergatik egin den proposamena (sozietate zibilaren zeregina indartu, proposamenak egiteko duen gaitasuna hobetu...) eta zergatik gonbidatu diren (zergatik erakunde horiek).

- Zer dakar parte-hartzeak: Foro Erregularraren hiru hilean behin bilera bat, sozietate zibilaren bilera lehenbizi, dokumentazioa kontrastatzea eta irakurtzea (aurrez aurre eta postaz), bileren ordutegia, txandakako bilerak (prestasuna).
- «Harrera» bileraren datak – abenduaren 10 edo 12, 16:00etatik 18:00etara, Sareen Sarean.

## 2. BILERAN ERABILITAKO LAN-DOKUMENTUA

### TESTUINGURU-ELEMENTUAK – BALDINTZATZAILEAK

#### IRMren txosteneko gomendioak

- Sarea duten edo proposamenak egiteko gaitasun teknikoa duten erakundeak.
- Sozietate zibil antolatua ordezkaririk.

#### Foro Irekiaren gomendioak

- **Mota:** irabazi-asmorik gabeko entitateak, adibidez elkarteak, fundazioak eta erakunde sozialak.
- **Lurralde-eremua:** lurraldeko edo tokiko erakundeak, hurbilekoak izan daitezten.
- **Jarduteko eremua:** sektore-erakundeak (gobernu irekitik harago doazen esparruetako adituak) edo intereseko kolektiboak hartzen dituztenak (normalean parte hartzeko prozesuetan ordezkaritza eskasa dutelako).
- **Antolaketa politikoa:** erakundeetan aldaketak sartzen lagun dezaketen erakundeak (alderdi politikoak, auzokoen plataformak, etab.) edo parte hartzeko foro instituzionalizatueta parte hartzen duten entitateak.
- **Gobernu irekiaren aldeko kultura sortzeko gaitasuna:** beste batzuk biltzen dituzten entitateak (sareen edo profesionalen sareak) eta aldez aurreko esparruan (sentsibilizazioa, kultura, etab.) jarduten duten hezkuntzako eragileak.

#### Foro Erregularraren gaur egungo osaketa – lurraldea, generoa eta tipologia

PERTSONA	ERAKUNDEA	LURRALDEA	GENEROA	TIPOLOGIA
Maialen Olabe	EGK	EAE	Emakumezkoa	Erakunde-taldea
Mikel Barturen	Sareen Sarea	EAE	Gizonezkoa	Sareen eta entitateen taldea
Ana Molina	Mestiza elkartea	Gipuzkoa	Emakumezkoa	Tokiko elkartea
Arantza Otaolea	Bilboko Emakumeen Kontseilua	Bizkaia	Emakumezkoa	Tokiko foroetan partaide
Antxon Gallego	Ibatuz	Bizkaia	Gizonezkoa	Enpresa - aditua
Eneko Agirre	Osoigo	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Enpresa - aditua
Miren Fernandez de Landa	Gasteizko Kontzejua	Araba	Emakumezkoa	Tokiko foroetan partaide

## HARTU BEHARREKO ERABAKIAK

Miren Fernandez de Landa **ORDEZKATZEA**ri dagokionez:

- Foro Erregularraren erabakia? Edo Foro Erregularra uzten duen pertsonarena?
  - Aurrekariak daude – Alberto Ortiz de Zaratek Antxon Gallegori eman dio bere lekua.
    - Ordezkoa izendatu zuten. Ez zen horrela gertatu Miren Fernandez de Landarekin.
    - Baja hartzeko arrazoia beste bat da – Miren Fernandez de Landak kargu publiko bat hartu du.
  - Badaude gauzak beste modu batera egitea justifikatzen duten desberdintasunak (Foro Erregularrean hartuko da erabakia), baina aurrekaria kontuan izan behar da.
- Erabakia talde horrek hartzea adosten bada, hura ordezkatu duen pertsona izendatu behar da.
  - Antzeko profila izan beharko luke? Edo ez?

**KIDE BERRIEI** dagokienez:

- Zehaztu zenbat erakunde sartuko diren.
- Zein erakunde sartu. Eztatutzeko proposamena:
  - Ahal dela, ordezkariak eta gaitasun tekniko egiaztatua dituzten erakunde handiak sartu (EGK edo Sareen Sarea motakoak).
  - Ez sartu erakunde aditu berriak.
  - Arabari lotuta dagoen erakunde bat sartu, gutxienez.
  - Intereseko arloak:
    - Landa-ingurunea
    - Hezkuntza
    - Komunitatea – auzoak
- Irekiera-maila (Foro Irekiaren proposamenak, aurreko prozesua) nahikoa den edo deialdi ireki bat egin behar den erabaki.
- Ikusi ERANSKINEan, identifikatuta dauden erakunde zerranda.

## SARTZEKO PROZESUA

Gonbidapena eta harrera

- Lehen kontaktua
  - Nork egingo du kasu bakoitzean
  - Epeak
  - Onarpena / Ezetza – proposamenen ordena
- Aurretiko bilera –Gonbidapenaren ostean, nola eman testuingurua
  - Nor
  - Zer informazio da garrantzitsua: bileren maiztasuna, tokiak, Foro Erregularraren funtzioak...

## ERANSKINA – ERAKUNDEEN ZERRENDA ETA PROPOSAMENAREN ITURRIA

### Autohautagaitzen prozesua – 2018ko maiatza

OHARRA - Azkenean Foro Erregularrean sartu ziren erakundeak kendu dira. Erantzunik eman ez zuten eta parte-hartzea eskuordetu zuten erakundeak mantendu dira. Gorriz adierazi dira konpromisoren batean zerbitzu-hornitzaile izan diren erakundeak, eta, beraz, ezingo liratekeenak Foro Erregularreko kide izan.

PERTSONA	ERAKUNDEA
Aitzol Batiz	INNKULTURA
Ana Navarri Jaumet	AGADELPRISE
Anabella Barroso	ALDEE
Antonio Campos y Eusebio	HELDUAK ADI
Aurora Hermosilla	EUSKADIKO GGKE-KO KOORDINATZAILEA
Claudia Bohórquez	GAMAKER
Cristina Apiñaniz	EUSKADIKO EKONOMIA ZIRKULARRAREN KLUSTERRA
Eva Silván	SAVE THE CHILDREN
Francisco Jesús Aloa	GAMAKER
Ivan del Caz	BIKONSULTING
Javier Goikoetxea	BIKONSULTING
Joxe Agustín Arrieta	LA SALLE BEASAIN
Julio Roca	ZUZENAK
Lucía Sarabia	IRSE INCLUSIÓN SOCIAL
Maria José Anitua	EUSKADIKO ELKARLAN ZUZENBIDEKO ELKARTEA
María José Cano	FEDEFES
Mikel Cabello	GLOBERNANCE
Miren Gutierrez	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
Nuria Bustamante	
Pablo Moratalla	EHLABE
Pablo Rey	
Ramón Ibeas	GASTEIZKO CÁRITAS
Ricardo Antón	COLABORABORA
Roberto Gómez de la Iglesia	C2 + I
Roberto San Salvador	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
Susana Sucunza	EUSKADIKO ELKARLAN ZUZENBIDEKO ELKARTEA
Txema Franco	LANTEGI BATUAK
Txema Odriozola	FEDERPEN

### Foro Irekia - proposamenak - 2019ko ekaina

Honako hauek dira bileran aipatu ziren erakundeak:

- fundazioak eta GGKEak, gai jakinetakoak barne (Internet Euskadi, adibidez).
- Hausnarketa egiteko foroak dituzten erakundeak eta jakituriaren ordezkari gisa bazkide aktiboak dituzten erakundeak (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País/Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza, etab.).
- Hirietako barrutietan dauden kontseiluak eta, udal mailan, auzokoen plataformak edo herritarren batzordeak.
- Lurraldeari lotuta dauden erakundeak, baldin eta prozesuetan ordezkaturik ez badaude edo horietan parte hartzen ez badute.

- Garrantzitsua da “zeharkako” erakunde gehiago erakartzea: adina, jatorria, generoa, enpresak edo sindikatuak, unibertsitateak.
- Gizarteratzeko dauden sektoreak ordezkatzeko dituzten erakundeak (ekarpen kualitatiboa) eta gutxiengoan dauden taldeak: feministak, LGTBI, gaixoak, ekologistak, presoak, etorkinak, etab.
- Hezkuntzako erakundeak: ikasleen elkarteak, irakasleak, ikasleen gurasoen elkarteak eta unibertsitateko kolektiboa.
- Gazteen mugimenduak: scout-ak, gaztetxeak, etab.
- Ekintzaileen taldeak: teknologia, zientzia, ingurumena, hazkuntza, elikadura, etab.
- Alderdi politikoak (hauteskundeetara aurkezten diren talde independenteak barne).
- Erakundeei laguntzen dieten eragileak eta politika publikoei lotuta daudenak.
- Arartekoa.
- Gobernantza-eredu berriak (elkarlanean oinarritutako jardunak, komunitate irekiak, etab.) sustatzen dituzten entitateak, hala nola Wikitoki edo Bilbao Data Lab.

### **Foro erregularra - proposamenak - 2019ko urria**

- Interesgarriak izan litezkeen erakunde batzuk aipatu dira: hezkuntza-eremua (adibidez, IGEak, unibertsitatea...), auzo-elkarteen koordinadorak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak, landa-ingurunea (AKE–Arabako Kontzejuen Elkartea) eta abar.